

---

## ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA NAFARROAN

---

### Laburpena

Elkartasunaren Aldeko Eskoletako herritartasun globalerako hezkuntza (HGH) banakako eta taldeko hazkunde prozesua da. Gizarte praktika da. Bizitzarako etengabeko prestakuntza ere bada, eta haren bidez eskuratzen diren gaitasun operatibo eta emozionalek errealitatea kritikoki pentsatzeko eta aztertzeke balio dutenez, ikasleak gizarte eragile aktibo bihurtzen laguntzen du. Alegia, errealitatearen eraldatzaile izan daitezten.

GGKEak izan behar al gara hezkuntza formalean HGH landu behar dutenak? Behinik behin Elkartasunaren Aldeko Eskolen kasuan bezala izan beharko litzateke, erakunde publikoen eskutik joanez, eta borrokatuz etorkizunean sistemak uler dezan HGH irakasleen prestakuntzaren zati bat izan behar dela, eta zeharkakotasunez landu behar dela ikastetxeen metodologian eta curriculumean.

### Palabras clave

Prozesua, Hezkuntza, ERaldatzailea, Kritikoia, Operatiboa, Emozionala

---

<sup>1</sup> **Marian Pascual Recalde** Nafarroako GGKE Koordinakundeko Heziketa Teknikaria da 2012tik, non Nafarroako Gobernuaren Elkartasunaren Aldeko Eskolak eta NGGKEK proiektuak kudeatzen dituen, besteak beste. 1996tik Kolonbiako Manizales hiriko Francisco José de Caldas Unibertsitateko Diseinu Departamenduko garapenerako heziketa proiektuetan lan egin zuen bertako zuzendari izan zen bost urteetan; gaur egun ere erakundeari bere laguntza eskaintzen dio. 2007tik 2011ra Bakearen Aldeko Lankidetzeta Batzarreko Heziketa eta Sentsibilizazio arduradun izateaz gain, bere Nafarroako egoitza zuzendu zuen eta Nazioarteko Lankidetzeta proiektuen kudeaketan trebatu zen. Hiru urtez GGKE honen ordezkari izan zen NGGKEK batzarrean. Gaur egun Nafarroako Udaletxe, Gizarte Zerbitzu eta Heziketa Zentroen, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) aholkulari da Garapenerako Heziketa gaietan. Europar testuinguruan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren Garapenerako Europar Urtea 2015 heziketa proiektua kudeatu du Nafarroan. Beste trebetasun batzuen artean, Gizarte eta Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da, eta GH eta komunikazio alorretan sakontzea gogoko du.

Harremanetarako datuak: San Pedro Auzoa, 31. Behea, ezk. 31014 Iruñea. Nafarroa.

Helbide elektronikoa: [educacion@congrnavarra.org](mailto:educacion@congrnavarra.org)

**ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN**

**ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA**

**ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE**

Gure autonomia erkidegoan, Nafarroan, gaur egungo proiektu handi batez, Elkartasunaren aldeko Eskolez, hitz egiten hasteko nahitaezkoa da GGKEen Koordinakundearen (GGKEK) eta Garapenerako Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren Batzordearen jatorriaz eta eraketaz errepaso historiko bat egitea.

90eko hamarkadaren erdialdera, %0,7aren aldeko kanpainen eta Aintzira Handietako drama humanitarioaren ondorioz indar mediatiko handiena hartua zuten Garapenerako Nazioarteko Lankidetzara (GNL) eta Garapenerako Hezkuntzara (GH) loturiko ekintzek, eta orduan sortu ziren gure erkidegoan koordinazio bat antolatzeke saiakerarik serioenak. Honi gehitu behar zaio Garapenerako Lankidetzarako Espainia eta Nafarroa mailako legeak sortu izana. Hainbat erakundek batera lan egitearen aldeko hautua egiten dute. Lan horrek aitortpena jasoko du, Garapenerako Lankidetzaren lehen Kontseiluan (1996) Nafarroako Gobernuak proposatzen digunean GGKEen ordezkari gisa gure proposamena egiteko. Aldez aurreko lan hori 1997an bukatu zen, GGKEen Koordinakundearen estatutuak onetsi eta aurkeztu zirenean. Batzar eratzailean 23 erakundek sinatu zituzten. Ondoko urtean, administrazio kontuengatik Nafarroako GGKEen Koordinakundea (NGGKEK) eta Garapenerako Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren Batzardea sortu ziren. Gaur egun, eta azken urteetako krisiari aurre eginez, Koordinakundea 56 erakundek osatzen dute.

Egindako ibilbidea luzea eta askotarikoa izan da, abagune politiko eta ekonomikoaren arabera. 2001ean esan dezakegu Koordinakundea finkatu egin zela Nafarroako gizarte esparruko erreferente gisa eta baita Koordinakunde barruko GGKEendako erreferente gisa ere, lan handia eginez administrazioen aurrean solaskide gisa aitortua izateko. Kanpo mailan, administrazio publikoen lankidetzarako politiken finkatzearekin bat egiten du. Horrela, 2001ean onetsi den Garapenerako Lankidetzaren Foru Legea eta Koordinakundean *Lau Haizetara* izeneko plan estrategikoa egin zen. Aldi berean, Nafarroako Gobernuak plan zuzentzailea egiten hasi zen eta hartan ere parte hartu genuen. Horren guztiaren ondorioz, estrategikoki intentsitate handiko urteak izan ziren Koordinakundean.

Garapenerako Hezkuntzaren Batzordearen bilakaera Koordinakundearen bilakaerarekin paraleloan joan da eta hasieratik izan da egitura barruko batzorderik indartsuenetakoa. 2002an, kanpoko entitate bati, "ABRA" kolektiboari eskatu genion Nafarroan 2000 eta 2002 bitartean finantzazio publikoarekin Garapenerako Hezkuntzarako egindako proiektu eta materialen azterketa. Hitzek hitz jasotzen dut txostenaren ondorio nagusien ataleko azken paragrafoa:

*"Hainbat GGKE daude eta, beraz, materialak eta proiektuak askotarikoak dira. Ohartu gara horietako asko hainbat GGKEk batera sinatzeko modukoak direla, helburuetan, ikuspegi metodologikoan, edukiak hautatzeko irizpideetan... Uste dugu material eta proiektuak sortzeko orduan GGKE desberdinen arteko koordinazio eta lankidetzari handiagora jotzeak ondokoa ekarriko lukeela:*

- *Eskainitako material edo proiektuen kopurua murriztea (ikastetxeetan batzuetan materialen nolabaiteko saturazioa sumatzen da; artxibaturik gelditzen dira, erabiliak izan gabe) baina kalitatea hobetuz.*

**ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE**

- *Material horiek sortzeko langile, denbora eta baliabide ekonomikoetan aurrezteak.*
- *Materialen banaketa eta hedapena areagotzea.” (1)*

Une horretatik aitzina, batzordeak eginahal guztiak jarri zituen Nafarroako Garapenerako Hezkuntzaren egoera eta zituen beharrak ikertzen eta baliabideak eta Nafarroako GGKEak koordinatzen, emaitzak hobetzeko. Eta 2007an *Atando cabos* (2) ikerketa proiektua sortu zen - proiektu hau oinarrituta dago Medicus Mundi GGKEak hezkuntza formalean, Lehen Hezkuntzako etapan, aurrez egindako lan batean-. Proiektua 12 eta 18 urte bitarteko etaparako prestatu zen, hezkuntzaren esparru formal eta ez-formaletarako. Proiektu hau orduko Nafarroako Gobernuak Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak finantzatu zuten.

Ikerketak helburu bikoitza izan zuten:

1. GGKEen Garapenerako Hezkuntzako proiektuak egiteko oinarri gisa baliatzea.
2. Aldez aurreko urrats bat, Nafarroako Koordinakundeko GGKEen artean ekinbide koordinatuan hasteko, hezkuntzako gainerako eragileekin lankidetzan.

Hiru atal independente dituen ikerketa bat da:

- a. Ikerketa kualitatibo bat eta ikerketa kuantitatibo bat, 12 eta 18 urte bitarteko adinetan Nafarroan ematen den Garapenerako Hezkuntzari buruz.
- b. Materialen eta proiektuen azterketa.
- c. Nafarroako gazteriaren gaurko egoeraren gaineko ikerketa bat.

Ikerketaren ondorioek Garapenerako Hezkuntzaren ekintza integratu, bateratu, koherente, jarraitu eta epe luzeko baten premia aipatzen zuten. Ekintza estrategiko horrek zentzua eman behar lieke hezkuntza esku-hartzei eta horien efektua biderkatu beharko luke, GGKEen eta gainerako hezkuntza eragileen artean adosturiko ekintzen bidez. Ildo estrategiko hauek erreferentzia egiten diote

- EDUKIARI
- KOORDINAZIOARI
- METODOLOGIARI
- PLANIFIKAZIOARI

NGGKEen Koordinakundeari dagokio estrategia adostea, gidatzea eta jarraipena ematea. Adostu ziren JARDUNBIDEAK honako hauek dira:

1. Garapenerako Hezkuntza sustatzea, gizarte aldaketarako beharrezkoa den zeharkako hezkuntza prozesu gisa, eginahal berezi bat eginez hezkuntza prozesuan, alderdi formal, informal edo ez-formaletan parte hartzen duten eragile guztiak barne hartzeko. Era berean, nahitaezkoa da hezkuntzaren kontzeptuaren baitan bereziki kontuan izatea zein den Hegoaldeaz ematen dugun irudia, irudi hori erreala eta hurbilekoa dela zainduz.

**ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE**

*Prozesua eta edukia*

2. Lankidetzaren eragileen arteko koordinazioa sustatzea -erakundeak, ikastetxeak, aisialdi elkarteak eta GGKEak-, maila eta arlo guztietan koordinazio hori sustatuz: entitateen beren barne koordinazioa eta eragileen arteko koordinazioa, horrela, koherentzia eraginez eskura dauden baliabideak egiteko, banatzeko eta ebaluatzeko orduan: materialak, prestakuntza, antolamendua eta finantzazioa.

*Eragile parte-hartzaileak, antolamendua eta egitura*

3

. Laneko plan, programa eta jardura dinamiko, malgu eta eraginkorrak sustatzea, azterketa, hausnarketa eta ekintza sustatzeko, hausnarketatik konpromisora bidea errazteko asmoz.

*Metodologia*

4. Jarraitutasuna izan den eta epe luzerakoa izan den lan bat erraztea eta sustatzea, norberaren programen eta prozesukako ikaskuntzaren arteko feedbacka laguntzeko.

Ondorio hauek bat egin zuten denboran Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren baitan Nafarroako Garapenerako Hezkuntzaren Estrategia prestatzearekin. Aipaturiko estrategia indarrean izan zen 2012ra arte (urte hori barne hartuta), baina Lankidetzaren II. Plan Zuzentzaileak (2011-2014) ere bere egin zuen. NGGKEK-k hor aholkularitza lan handia izan zuen. Estrategia horren xede nagusia da Nafarroan Garapenerako Hezkuntzaren kalitatea hobetzea, eragin handiagoa izan dezan Foru Erkidegoko herritarrek garapen bideko herrialdeen egoerari eta mundu mailako interdependentziari buruz dituzten ezagutzetan, herrialde kideekin elkarlanean aritzearekiko jarrera baikorretan eta herritarren konpromiso aktiboan.

Esparru horretan eta funtsezko hiru zutabe izanik, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua eta Gizarte Politiketako Departamentua eta NGGKEK, sortu zen Elkartasunaren Aldeko Eskolen Programa, Nafarroako Felipe Rinaldi Fundazioaren babesarekin.

Programa sortu zen unibertsitate aurreko hezkuntza formalean, Haur Hezkuntzatik Batxilergora, Garapenerako Hezkuntzaren kalitatean eragiteko. Nafarroako ikastetxeei prestakuntzako, koordinazioko eta aholkularitzako proposamena eskaintzen zaie, Garapenerako Hezkuntza abian jartzeko. Elkartasunaren Aldeko Eskolen proiektuak bilatzen du pixkanaka Garapenerako Hezkuntza curriculumean eta ikastetxeko hezkuntza proiektuan sartzea eta, orobat, elkarren artean eta ingurunearekin eragina izan den elkartasunaren aldeko eskolen sare bat sortzea.

Elkartasunaren Aldeko Eskolen programaz gain, Koordinakundearen Hezkuntza Batzordeak beste hainbat eginkizun ere planteatzen ditu, besteak beste, hurrengo zerrendan aipatzen direnak (Koordinakundearen Hezkuntza Batzordea osatzen dute idazkari tekniko batek eta

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

Nafarroako 13 GGKE hauetako boluntarioek: ALBOAN, SED, UNICEF, Bakea eta Elkartasuna, OCSI, Munduko Medikiak, ACPP, FABRE fundazioa, Medicus Mundi, Madre Coraje, FISC, Manos Unidas eta Nakupenda Afrika. Horietatik, Elkartasunaren Aldeko Eskolen taldeko kide dira ALBOAN, SED, UNICEF, Bakea eta Elkartasuna, OCSI, Munduko Medikiak, UNRWA, ACPP eta FABRE fundazioa eta, gainera, beste GGKE laguntzaile batzuek aholkularitza eta materialak ematen dizkiete, besteak beste, Oxfam Intermon, SETEM edo Manos Unidasek):

- Nafarroako Gobernuaren Gizarte Politiketako Departamentuarekiko eta Hezkuntza Departamentuarekiko koordinazioa.
- Lankidetzaren Kontseiluarekiko eta Garapenerako Hezkuntzaren Batzorde Teknikoarekiko koordinazioa.
- GGKEen arteko koordinazioa. Urtean behingo topaketa.
- Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin eta erkidegoetako koordinakundeekin lan egitea.
- NGGKEkren **Hezkuntzako Aholkularitza Zerbitzua** abiatzea (2006ko otsailan) eta gaur egunera arte jarraitzea. Eginkizun hauekin:
  - Eskaintzen ari den Garapenerako Hezkuntzako materiala **ezagutzea**.
  - Material guztia Garapeneraren Aldeko Hezkuntza Baliabideen Katalogoan **biltzea**.
  - Ekimena **hedatzea** eta materialak ikastetxeei, aisialdiko elkartei eta gurasoen elkartei eskaintzea.
  - **Aholku ematea** irakasleei, aisialdiko elkarreetako hezitzaileei eta GGKEei Garapenerako Hezkuntzaren proiektuak garatzeko.
  - Material eskakizunak GGKE desberdinei **bideratzea**.
  - **Koordinatzea** bestelako entitate eta hezkuntza eragileekin.

Eta bestelako jarduerak batzuk:

- **Garapeneraren Aldeko Hezkuntza Baliabideen Katalogoa** prestatzea, aisialdiko hezitzaileei eta ikastetxeetako irakasleei zuzendurik. Urtero eguneratzen da eta NGGKEkren webgunean aurki daiteke, Nafarroan Garapenerako Hezkuntzan lanean ari diren GGKEen baliabideekin. <http://www.congdnabarra.org/catalogo-de-recursos-de-educacion-para-el-desarrollo/>
- Urtero eguneratzea **Ibilbide Solidarioak eta Jarduerak eta Egutegia**. Horiek ere NGGKEkren webgunean daude. <http://www.congdnabarra.org>
- **Prestakuntza ikastaroak** antolatzea irakasleentzat eta aisialdiko hezitzaileentzat. Batzorde gisa **Jardunaldi eta Foroetan** parte hartzea (Hezkuntza Batzordeak azken urteetan bere programak aurkeztu eta aholku eman die Madrilgo Erkidegoko GGKEen Koordinakundeari -FONGDCAM-, Extremadurako GGKEen Koordinakundeari eta Elkartasunaren Aragoiko Federazioari -FAS-, besteak beste, eta Bizkaian Hegoakak eta Jolas eta Ekinek antolaturiko kongresuetan parte hartu du).
- **Eragin politikoa** eta **erakunde publikoekiko koordinazioa**.

Esan dezakegu lan honetan guztian proiektu izarra **Elkartasunaren Aldeko Eskolak** direla.

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

Hiru dira programaren zutabe nagusiak:

a) Administrazio publikoak

Hezkuntza Departamentuak irakasleen prestakuntza planak antolatzerakoan laguntzen du, garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren sustapenaren gaineko proposamenak ere sartuz. Izena eman duten irakasleei Elkartasunaren Aldeko Eskolak lantzen eginiko prestakuntza orduen egiaztapena ematen zaie, izena emateko modalitatearen arabera. Bi modalitate daude izena emateko: *ikastetxean mintegia* egiteko izena eman daiteke, modu errazean, Hezkuntza Departamentuko ILZren webgunearen bidez; beste aukera da *ikastetxeak Elkartasunaren Aldeko Eskolen sare batean parte hartzeko deialdi* baten bidez ematea izena (halakoetan berariazko proiektu batekin hiru urtez parte hartzeko konpromisoa hartzen dute ikastetxeek). Era berean, Departamentuak programaren jarraipena eta ebaluazioa egiten du. Beste erakunde batzuekin eta NGGKEen Koordinakundearekin antolatzen da. Proiektua hedatzen du.

Gizarte Politiketako Departamentua da gure Foru Komunitatean Garapenerako Lankidetzaren esparruan eskumena duena. Programaren beste antolatzaileetako bat da eta GH sustatzen du, GHko ekintzak finantzatu eta finantzaketa hori gainbegiratu eta aztertzen du, eta programa hedatzen du. Gainerako eragileekin egiten diren koordinazio eta jarraipen bileretan parte hartzen du.

Ikasturte honetan bi departamentuetako kontseilariak itun bat izenpetu zuten, Elkartasunaren Aldeko Eskolen programan duten baterako parte-hartzea finkatzeko.

b) Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak

**Nafarroako GGKEen Koordinakundea da hirugarren eragilea, programaren kudeatzailea.** Bere eginkizuna da ikastetxeetako irakasleei prestakuntza eta aholkularitza ematen dieten GGKEak koordinatzea. Era berean, aholkularitza zuzena ematen die zenbait ikastetxeri, prestakuntza eta programako jarduerak antolatzen ditu eta esperientziak webgunean hedatzen ditu, bestelako gaien artean.

**GGKEek** ikastetxeei eta irakasleei aholkua ematen diete GH lantzeko jarduerak eta baliabideak proposatuz.

GGKE horiek ondoko ezaugarriak edo konpromisoak izan behar dituzte:

- Esperientzia izatea GHko proiektuetan. Gainera, beren hezkuntza materialak Baliabideen Katalogoan egon beharko dira (NGGKEK).
- Prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea eta irakasleekin batera lan egitea irakasleek beren hezkuntza proposamena ikasgelan aplikatu dezaten (irizpide orokor gisa, GGKEek ez dituzte jarduerak ikasgelan egiten).
- Hezkuntza proposamenaren jarraipena egin behar dute ikastetxeetan.

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUESTA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

- Erakundeekin eta NGGKEekin egiten diren bileretara joatea, baita azken topaketara ere.

c) Ikastetxeak:


Irakasleak programako eragile nagusiak dira. Prestakuntza eta aholkularitza jasotzen dute eta garapenerako hezkuntzako proiektuak bultzatzen dituzte, ikastetxean burutu daitezten. Hezkuntza erkidego osoa sartu nahi dute programan eta ingurune hurbilekiko harremanak sustatu. Gutxienez 3 irakaslez osaturiko lantalde bat eratu behar dute eta sareko deialdiaren kasuan ikastetxeko irakasleen eta ikasleen %25 ukitu inplikatu behar ditu.

Izena emateko modalitatea bietako edozein izanik ere, ikastetxeek betekizun batzuk dituzte:

- Elkartasunaren Aldeko Eskolen proiektuaren hasierako informazio saioan parte hartzea.
- Gutxienez 10 orduko aholkularitza eta prestakuntza jasotzea.
- Ebaluazio orria eta sinadura orriak bete eta entregatzea.
- Memoria aurkeztea, NGGKEen Koordinakundeak gomendatzen duen formatuan.
- Azken topaketan parte hartzea, esperientziak partekatzeko.

Elkartasunaren Aldeko Eskolen programa unibertsitatean ere lantzen da. Humanitate fakultatearekin elkarlana egiten da zenbait gradutako curriculumean Garapenerako Hezkuntza sar dadin eta, esaterako, Irakasle ikasketetako ikasleek dagoeneko praktikak egiten dituzte Eskolaren Aldeko Eskoletan. Aintzat hartzen dira, besteak beste, EAEko eta Valentziako proposamenak (3).

Elkartasunaren Aldeko Eskolen lehen esperientzia 2009-2010 ikasturtean hasi zen, 3 ikastetxerekin. Orain 45 ikastetxe gara, eta bilakaera hau izan da urtez urte:




1. grafikoa: Ikastetxe parte-hartzaileen bilakaera.

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUESTA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

2009-2010 ikasturtea: 3 ikastetxe  
2010-2011 ikasturtea: 15 ikastetxe  
2011-2012 ikasturtea: 25 ikastetxe  
2012-2013 ikasturtea: 32 ikastetxe  
2013-2014 ikasturtea: 33 ikastetxe  
2014-2015 ikasturtea: 45 ikastetxe

Azken ikasturtean gutxi gorabehera 10.000 ikaslek eta 370 irakaslek parte hartu dute programan.

Elkartasunaren Aldeko Eskolen prozesuak ondoko faseak ditu:



Grafikoa: Programako parte-hartzearen prozesua.

### 1ª Fasea

Lantaldea osatzea. Aurretik NGGKEen Koordinakundeak eta GGKEek proiektua hedatzen dute Nafarroako ikastetxe guztietan. Fase honetan, behin lantaldeak osatu direnean, ikastetxeek izena ematen dute. Aurrerago azalduko ditugu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren bidez izena emateko dauden bi modalitateak. Elkartasunaren Aldeko Eskolen programa Nafarroako ikastetxe guztiei zuzenduta dago. Fase honetan funtsezko eginkizuna du NGGKEen Koordinakundeak, ikastetxeren batek ez badu GGKErik esleituta edo GGKE bati ikastetxeak falta bazaizkio, hau baita aldeak koordinatzeko une aproposa. Iraila bukaerarako ikastetxe bakoitzak GGKE bat izan behar du esleituta, harekin lan egiteko: ikastetxearen erreferentea, aholkularia eta programarako lotura izanen da, eta NGGKEen Koordinakundearen bidez kudeatuko du.



ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN

ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA

ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

### 2ª Fasea

ehenik eta behin ikasturte hasieran Elkartasunaren Aldeko Eskolen programari buruzko **informazio saio** bat egiten da, eta geroago prestakuntza, Garapenerako Hezkuntzan eta dagozkion didaktiketan irakasleen gaitasun profesionalak gaurkotzeko beharrari erantzuteko. Teoriaren eta praktikaren arteko lotura bermatu nahi da, irakasleei beren jarduera profesionalaren gainean hausnartzeko aukera emanaz. Hezkuntzaren Batzordeak (NGGKEK) antolatzen du prestakuntza, eta arduratzen da helburuak eta edukiak zehazteaz, metodologia diseinatzeaz eta hizlariak bilatzeaz.

### 3ª Fasea

Aholkularitza Teknikoa eta Laguntza. Aholkularitza Teknikoak laguntzen du irakasleek erabakitzen duten proiektua prestatzen eta edukiak, metodologiak eta jarduerak definitzen. Aholkularitza ikastetxearen errealitatearen eta lantaldea osatzen duten irakasleen arabera egiten da. Proiektuak nahieran egiten dira. Aholkularitza eta GGKEen Garapenerako Hezkuntzako materiala euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen dira. Proiektuan zehar ikusi dugu ikastetxeek material eta jarduera ugari sortzen dituztela, NGGKEek eskainitakoez gain. Topaketan irakasleek hainbat une dituzte ikastetxeetan sorturiko jarduera horiek konpartitzeko.

### 4ª Fasea

Ikastetxean abian jartzea. Lan hori irakasleei dagokie. Irakasleek jartzen dute proiektua abian, zuzenean beren ikasleekin lan eginez.

### 5ª Fasea

Egindako lan guztia jaso eta memoria prestatzea. Hau sistematizazio eta ebaluazio fasea da. Ikastetxe parte-hartzaileek esperientzia ebaluatu eta egin duten lana sistematikoki jaso behar dute, memorian sartzeko. NGGKEen Koordinakundeak online argitalpen bat prestatzen du memoria guztiakin, non esperientzia guztiak laburbiltzen dituen, esperientzia horiek partekatu eta gizarteratu ahal izateko.

<http://www.congdn Navarra.org/la-coordinadora/escuelas-solidarias/>

### 6ª Fasea

Elkartasunaren Aldeko Eskolen azken jarduera gisa, topaketa egiten da esperientziak partekatzeko. Helburua da eragin sozial eta politikoa izan dezala eta, orobat, aitortza publikoa Hezkuntza Departamentuaren, Gizarte Politiketako Departamentuaren eta GGKEen Koordinakundearen aldetik. Topaketan Jardunbide Egokiak aitortuko dira Nafarroako ikastetxe gehiagok eta GGKE gehiagok parte har dezaten. Jardunaldi horrek bi zati ditu. Lehenengo zatian lantegia egiten da eta ikastetxeek esperientziak partekatu eta egindako jarduerak ebaluatzen dituzte, eta GGKEek eta erakundeek programa aztertu eta planifikatzen dute etorkizunari begira. Bestean, erakundeek bultzada ematen diote programari modu ofizialean eta ziurtagiriak ematen dizkiete ikastetxe parte-hartzaileei.

Gure ustez Garapenerako Hezkuntza PROZESU bat da, aberastasunaren eta boterearen banaketan PLANETA MAILAN DAUDEN DESBERDINTASUNEZ eta horien ZERGATIEZ ETA

**ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN**

**ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA**

**ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE**

ONDORIOEZ jabetzea bilatzen duena eta ELKARTASUNEN ETA GIZARTE-KONPROMISOKO JARRERAK bultzatzen dituen, mundu justuago baten alde. Hezkuntza global baten aldeko hautua egiten dugu, nahi dugu mundu globalizatuko errealitateen aurrean pertsonen begiak eta buruak zabaltzen dizkien hezkuntza bat, denentzat justizia, ekitate eta giza eskubide gehiago duen mundua lor dezaten esnatzen dituen.

Irakasleekin batera, gure buruari galdetzen diogu zer egin beharko luketen ikastetxeek bizi garen XXI. mendean ikasleak hezteko, erronka handiko garaia eta mundu nahasia izanik. Nola presta dezakegu gizartea era horretako erronkei aurre egiteko?

Zer erantzukizun dagozkigu gero eta ezagutza gehiago dauden eta teknologia etengabe garatzen den mundu honetan? Zer erantzukizun ditugu pobreak, neurrigabeko indarkeriak, iturri askotako aurreiritziak eta ingurumenerako kalte konponezinek erasandako mundu honetan?

Herritartasun globalerako hezkuntza galdera horiei erantzuten ahalegintzen den Elkartasunaren Aldeko Eskolendako proposamen berria da. Pertsonen mundu mailako arazoak uler dezaten bilatzen du, herritarrek arazo globalei aurre egiteko beharrezkoak liratekeen ezagutzaren, gaitasunen, balioen eta jarreraren boterea emanaz jendeari.

Zentzu honetan, herritartasun globalerako hezkuntza aldaketa eta norberaren eraldaketa ahalbidetzen dituen banakako eta taldeko hazkunde prozesua da. Oinarrian, gizarte praktika da. Bizitzarako etengabeko prestakuntza ere bada, eta haren bidez eskuratzen diren gaitasun operatibo eta emozionalen errealitatea kritikoki pentsatzeko eta aztertzeke balio dutenez, pertsonak gizarte eragile aktibo bihurtzen laguntzen du. Alegia, errealitatea eraldatzen duten pertsona izan daitezten (4).


Testuinguru horretan, gero eta zentzuzkoagoa da pentsatzea hezkuntzak gure munduko gai garaikideen gainean balorazio erreal eta informatua egiteko aukerak eskaini behar dituela, etorkizun fatalista bati buruzko malenkoniako irudi ezkorak indartu gabe. Aldi berean, gaur egungo curriculumen diseinuetan etorkizunerako aukera desberdinen gaineko askotariko ikuspegiak sormenez eta arrazionalki eztabaidatzeko tarte eta abagune handiagoen premia dela argudiatzen da. Planteatzen ari garen ikuspegi pedagogiko hau bat dator hainbat herrialdetan edukien berrikuntzaz arduratuta dauden hezkuntza mugimenduekin, hots, gaien gaineko ikuspegi malguagoa eta irekiagoa bultzatzen dutenekin, gai berriak erabiliz eta metodologia aktiboak eta baliabide originalak garatuz. Elkartasunerako Eskolen herritartasunerako hezkuntza globala mugimendu horren barnean kokatzen da. (5)

Elkartasunaren Aldeko Eskolen irakasleak ekinean hasi dira, argi dutelako ez dela aski Garapenerako Hezkuntzako gaiak zeharka lantzea, metodologia aktibo eta kritikoa izan ezean eta ez bada alde batera uzten klase informatibo hutsen eredu, non irakasleak bakarrik zuen egiaren boterea. Herritartasun aktibo eta konprometituan jarduteak berak metodologia berezi bat ekartzen du, irakaskuntzaren jardun tradizionala alde batera uzten duena, ikasten den zerbait baino gehiago delako: eguneroko jardunean, ikasgelako paretetatik at, txertatzeko


ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

bitarteko bat. Ez dago tokiko arazo baten gainean lan egiterik errealitate globalaren barruan ulertu gabe; bestela, ez genituzke ezagutuko arazoaren zergatiak eta ondorioak. Ulertu behar da tokiko edozein ekintzak maila globalean tximeleta efektua eragin dezakeela. Eta tokikoan lan egin beharra dugu elkartasun hutsagatik, eta egiaz non ekin dezakegun, hara hurbildu beharko ginatkeelako.

Elkartasunaren Aldeko Eskoletan gure barrurantz ere begiratzen dugu, gure burua ebaluatzen dugu 2014. urtean ebaluazio azterlan bat egin genuen. Programako 33 ikastetxetako 87 pertsonak parte hartu zuten. Hona hemen galdera adierazkorrenen lagin bat: (6)




3. grafikoa: Noiztik egiten duzu lan irakasle gisa Elkartasunaren Aldeko Eskolen programan?




4. grafikoa: Zure ikastetxean, zer irakasgaitan lantzen da GH?

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE



5. grafikoa: Curriculumean bada tarterik GHn lantzen diren gaietarako?



6. grafikoa: Irakasleek uste dute Elkartasunaren Aldeko Eskolen programa positiboa dela ikasleen prestakuntzarako?




Gráfico 7: ¿Valoras alejada la realidad educativa y las leyes educativas de la ED?

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
 NAFARROAN  
 ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
 GLOBAL EN NAVARRA  
 ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
 GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE



8. grafikoa: Zure ustez, beharrezkoa da eta posible da Elkartasunaren Aldeko Eskoletatik politikan eragitea hezkuntzako legeak hobetzeko?

Ebaluazio honetatik eta urtero Nafarroako Gobernuak egiten dituenetatik, ondorio hauek atera ditzakegu.

Elkartasunaren Aldeko Eskoletara hurbiltzen diren irakasleen %83k ez daki Garapenerako Hezkuntza sakonean zer den eta ikasgelan nola aplikatu. Garapenerako Hezkuntzaren gaineko prestakuntza jaso ondoren, irakasleen %78 interesatua dago eta programan gutxienez hiru urte parte hartzen jarraitzen du. Nolanahi ere, datuak aldakorrak dira, programak 6 urte bakarrik daramatzalako martxan. Irakasleen %34k Herritartasunerako Hezkuntza bezalako irakasgai espezifikoetan lantzen du GH, baina dagoeneko %66k lantzen du gainerako irakasgaietan txertaturik (berariazkoak, matematika, hizkuntza, gizarte zientziak, hizkuntzak...), eta %87k uste du curriculumean gai honetarako tokia dagoela eta zeharkakoa izan beharko litzatekeela. Elkartasunaren Aldeko Eskoletako irakasleen %100en iritziz programa baliagarria eta onuragarria da ikasleen prestakuntza osorako eta ikasleak gelan motibatuago sentitzen dira. Hala era, irakasleen %57k hezkuntza errealitatea egungo hezkuntza legetatik urrun ikusten du eta %71k uste du haiek hobetzeko Elkartasunaren Aldeko Eskolek areago landu beharko genukeela eragin politikoaren ildoan.

Con esta evaluación y las que realiza anuales el Gobierno de Navarra, podemos extraer las siguientes conclusiones.

1. koadroa
Ebaluazio horretan irakasleek idatziriko iruzkin positibo batzuk jaso ditugu
[- Ezinbesteko informazioa ikasgelan eta ikastetxe mailan Garapenerako Hezkuntzaren gaiei buruzko proiektuak abiatzeko eta ahalik eta irakasle gehien parte hartzera animatzeko. ↔ - Harremanak hasi dira Koordinakundearekin eta GKEarekin.] – [Esperientzen trukerako baliagarria. ↔ Ikastetxeetan lantzen dutena ezagutzea proiektuan lan egiteko pizgarria da]. ↔ Lehenengo unetik programaturiko jarduerak martxan jartzea. -ikasleen garapen pertsonala indartzen du ↔ - jabearazten ditu beste haur batzuen egoeraz, lurraren zaintzaz eta kontsumo arduratsuen premiaz.] – [BESTE HERRIALDE BAT EZAGUTU DUGU. ANIMALIAK, LANDAREAK, KULTURA, BIZIMODUA... ] – [Hizlariak lagundu zigun dagoeneko ikastetxean egiten genituen jarduerak egituratzen eta antolatzen, ez baikenituen agiri batean behar bezala

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

antolaturik.] – [Ikuspegi orokorra eman digu, ekimen solidario batek gure ikasleengana iristeko behar duenari buruz eta, orobat, urrunagoko beste ingurune batzuetan diren arazoak hedatzeko. Nola jabeaz ditzakegun gure ikasleak beste herrialde batzuetan gertatzen diren arazo larriez eta hezkuntza erkidego bezala egin dezakegun ekarpena – [Oso garrantzitsua da ikastetxe eta institutueta elkartasunerako hezteak]

## 2 Koadroa

Hobetu beharreko alderdien gaineko iruzkinak

[Bileretarako tokiak eta denbora ematea ↔ Liberazioen bat irakaslanetik] – [Sareko lana hobetzea, lankidetzatza horizontaleko tresna gehiago sortzea.] – [Ezer berezirik ez.] – [- Ikastetxe bakoitzaren ardura duen GGKEekin harremana aldizkakotasun handiagoarekin izatea. ↔ - Gai hauetan dagoeneko nolabaiteko prestakuntza izan dutenak prestakuntzako solasaldira joatetik salbuetsita izatea gaia berbera edo antzekoa bada, eraginkorragoak izateko eta denbora beste kontu batzuetarako erabiltzeko. ↔ [Irakasleen mugikortasunak programaren jarraitutasuna zailtzen du]. [Zaila da klaustro osoa eta ikastetxeko zuzendaritza motibatzea] [Erabili beharreko metodologiek eta ikasgelako jarduerekin zerikusia duten prestakuntzak] Gelan gai jakin batzuk jorrazteko moduen adibideak eman ahal izatea. ↔ ] [Ikastetxe batzuen eta besteen programazioen arteko lotura eza. – [- gaiak sakonago lantzeko denbora falta. ↔ ]

Paulo Freirek dioen bezala, uste dugu proiektu honetan jarraitu behar dugula ezinbestekoa delako “errealitate zapaltzailea gainditzeko eta hain desatsegina eta hain gaiztoa ez den gizartea, gizarte humanoagoa, eraikitzeko” (7). Beti ez dugu argi GGKEak izan behar garenik hezkuntza formalean GH landu behar dutenak, hezkuntza sistemak funtzionatzen ez duelako. Behinik behin Elkartasunaren Aldeko Eskolen kasuan bezala izan beharko litzateke, erakunde publikoen eskutik joanez, eta borrokatuz Europa mailan oraindik kontraesan ugari dituen hezkuntza sistema honek -irakurri Euydice (8)- etorkizunean herritartasunerako hezkuntza globala uler dezan, ikus dezan irakasleen prestakuntzaren zati bat izan behar duela, eta zeharka sar dadin ikastetxeen metodologian eta curriculumean. “Utz dezagun arazo erabakigarriak, bereziki gure kulturaren aldaketan eragiten ari diren arazoak, eta haien gainean pentsatzeko gure prozedurak eskolan eta ikasgelako lanean egiten denaren parte izan daitezen”, idazten zuen Bruner-ek. (9)

Elkartasunaren Aldeko Eskolen lanean aipagarrienak iruditzen zaizkigun ekarpenak:

- Herritartasun globalerako hezkuntza hautatzen eta defendatzen duten erakundeekin taldean egiten da lan. Betiere gogoan izanik Hegoaldearen ikuspegiak bereizten gaituela beste eskola sare batzuetatik.
- Koordinakundeetan pertsona batek proiektua kudeatzen du, GGKEak koordinatzen ditu eta kudeaketa hori ikastetxeetara hedatzen da. Horrela, ikastetxeek arreta antolatua

ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN  
ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA  
ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE

jasotzen dute, nahieran, ez zaizkie hainbat elkarte ate joka joaten ikastetxearen proiektua ezagutu gabe. Kudeatzaile horrek arreta ematen die GGKErik ez duten ikastetxe guztiei, duten arte, eta ikastetxerik ez da gelditzen arreta gabe.

- GGKEek (ALBOAN, UNICEF, SED, OCSI, Bakea eta Elkartasuna, FABRE fundazioa, Munduko Medikuak, ACP, El Salvador Elkartasuna eta UNRWA) elkarren artean koordinaturik egiten dute lan.
- Baliabideen Katalogoaren bitartez ikastetxeek koordinatzen dituen GGKEari Nafarroako beste GGKE batzuen materialak eska diezazkiokete eta Koordinakundeak ematen dizkie.
- Ez da ikasgelan sartzen, aitzitik, irakasleek jasotzen dute prestakuntza.
- Antolaketako egiturak aukera ematen du beste proiektu batzuk programara egokitzeko. Elkartasunaren Aldeko Eskolei esker, 2015ean Garapenaren Urtea ospatzeko AECIDek antolaturiko europar programan parte hartu duten erkidegoetako bat izan da Nafarroa.
- Politikan eragiten da, etorkizunean hezkuntza sistemak herritartasun globalerako hezkuntza berezkozat har dezan lan eginez.

Ez da bazter utzi behar legedi orokorrean eragitea bilatzeko borroka, nahiz eta Elkartasunaren Aldeko Eskolena moduko proiektuetan izateak lankidetzan aritzeko aukera ematen duen, ikasteko bestelako ereduak eta ikasleen eta gizarte jardueraren arteko gunere errealak eskaintzeko xedearekin.

## Oharrak

(1) ABRA (2002). *Análisis de los proyectos y materiales de ED en Navarra entre 2000 y 2002*. Navarra: CONGDN.

(2) VVAA. (2007). *Atando Cabos*. Navarra: CONGDN.

(3) BONI, A., FERRERO, G. et al. (1997). *Introducción a la cooperación para el desarrollo. Una propuesta curricular para la enseñanza de la Educación para el Desarrollo en la Universidad*. Valencia: Universidad Politécnica de Valencia.

ORTEGA, M.L. (2014). *Guía para la colaboración entre ONGD y Universidad*. Córdoba: Fundación ETEA.

(4) VVAA (2009) *Educación para la ciudadanía Global. Debates y Desafíos*. Bilbao: HEGO. Disponible en: [www.hegoa.ehu.es/articulos/text/educacion\\_para\\_la\\_ciudadania\\_global\\_debates\\_y\\_desafios](http://www.hegoa.ehu.es/articulos/text/educacion_para_la_ciudadania_global_debates_y_desafios)

(5) MARHUENDA F. (1995): *La educación para el desarrollo en la escuela. Posibilidades e interrogantes*. Barcelona: Intermón.

ALBURQUERQUE F. et al. (1995). *Hacer futuro en las aulas educación solidaridad y desarrollo*. Barcelona: Intermón.

MORIN, E. (2000). *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Conferencia disponible en: <http://www.indexnet.santillana.es/rcs2/reflexiones/morin.html> MORIN, E. (2001)

**ELKARTASUNAREN ALDEKO ESKOLAK: GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA  
NAFARROAN**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS: UNA APUESTA POR LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO Y LA CIUDADANIA  
GLOBAL EN NAVARRA**  
**ESCUELAS SOLIDARIAS (SCHOOLS IN SOLIDARITY): A BID FOR EDUCATION FOR DEVELOPMENT AND  
GLOBAL CITIZENSHIP IN NAVARRE**

(6) CONGDN (2014). *Estudio evaluativo del Programa Escuelas Solidarias*. Navarra

(7) FREIRE, P. (2002). *A la sombra de este árbol*. Barcelona: El Roure.

(8) Eurydice (2005). *La educación para la ciudadanía en el contexto escolar europeo*. Disponible en:  
[www.educacionenvalores.org / IMG/pdf/eury2006ecceepc.pdf](http://www.educacionenvalores.org/IMG/pdf/eury2006ecceepc.pdf)

(9) BRUNER, J. (2000). *La educación, puerta de la cultura*. Madrid: Visor